

MONT BLANC:

lau bide Euskal Herriko emakumeentzat

Hogeit bat euskal emakume mendizale Mont Blancera igotzekoak dira. Lau bide desberdinetatik abiatuta, uztailaren 21 edo 22an gailurra zapaltzeko asmoa dute. Denek 40 urtetik gora dituzte eta aldarrikapena ez dute albora utzi: aisialdi ekintzetan emakumeen parte hartze handiagoa bultzatzeko ekimenak eskatzen dituzte.

Lur Mallea

Fotos: Ane Hernani

Euskal Herrian mendizaletasun nabarmena izan dugu betidanik. Gure inguruko tontorretan eta aldameneko Pirinioetan, emakume eta gizon ugari ari-tzen da batera eta bestera. Baina, goimendietara jauzi egitean, sexu

arteko desoreka izugarri handitzen da. Oso emakume gutxi dabil gailur handietan. Are gutxiago, emakume helduak. Arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen? Emakumezko mendizaleek beren burua prest ikusi ez eta au-

sartzeari uko egitea, nagusiki. Desoreka eta konfiantza falta egoera hau aldatu nahian, Marimendi elkarteja jaio da. Euskal emakume mendizaleak batu eta Mont Blancera eramango dituen taldea.





Marimendiren oinarriak

Taldean parte hartzeko, baldintza bihurtu diren hiru ezau-garri dituzte komunean espedizio kideek: emakumeak, 40 urtetik gorakoak eta euskaldunak izatea. Batetik, adina ez delako traba, gogo eta prestaketa egokiaz. Eta bestetik, beraien arteko harremana euskaraz burutzeari erabateko garrantzia eman diotelako.

Marian Arin andoaindarrak jarri zuen proiektua martxan 2005ean. Iazko gabonetatik ahoz-ahoz zabaldu da bere berri, 22 emakume elkartzeraino. Jatorri bizkaitarrak, gipuzkoarrak, arabarrak eta nafarrak dira. Gazteenak, 40 urte bete berri ditu eta zaharrenak, 65 urte dauzka. Aurretik ezagutzen ez ziren arren, orain arteko bilera eta irteerei esker, oso giro ona sortu da beraien artean.

Erronka: 4.808 metrora iristea

Europa mendebaldeko mendirik enblematiko eta garaiena da Mont Blanc. Hainbat bide ditu, eta bakoitzak bere zailtasun maila. Marimendikoek horietatik lau bide hautatu dituzte. Bi emakume dira biderik zailenetik abiatuko direnak. Biak eskalatazailerak. Besteek, bide arrunt eta jendetsuetatik ekingo diote.

Mendiko gidek lagunduta, sokaz elkarri lotu, pioleta eskuan eta botapean kranpoiak dituztela, elur eta izotz gainean ibiliko dira gora eta behera. Era honetan aritzeko, joan den negu eta udaberrian zehar eginiko prestaketen eskarmentuak balioko die.

Nahiz eta hasiera batean ton-torrean denek bat egiteko asmoa zuten, teknikoki oso gauza zaila da. Taldeko argazkia,

beraz, jaistean egitea erabaki dute. Guzti hori, uztailaren 21 edo 22an izango da. Aurretik, uztailaren 15ean, altuerako gitorotzea egingo dute lau mila metroko mendietan, Suitzako Saas Fee bailaran.

Irrika eta ardura

Gogotsu eta irrikaz beteta daude partaide guztiak. Miren Otsoa, 59 urteko bilbotarra, helduenetako bat da. Azken hilabete hauetan, "Mont Blanc buruan daukadala" esnatzen da egunero Miren. "Emakume helduak goimendi batera igotzeko ametsak bultzatuta" egin du bat proiektuaz. Arduratuta ere badagoe-la aitortu du. "Ardura handia daukat, ez dakidalako denok goraino igotzeko gai izango garen eta ni horretarako kapaz izango ote naizen". Baina bere kezkek laster usatzen dira espedizio kideen arteko harreman bikaina eta taldeak duen kimen eta ilusia eta aipatzean. "Biltzen garen bakoitzean indarberitzen gara".

Koadrila sendo honek, Mont Blanc, lau bide Euskal Herriko emakumeentzat espedizioari esker, hainbat amets beteko ditu. Eta horixe azpimarratu nahi dute bereziki: emakumeen aisialdirako horrelako egitasmoak falta direla gure gizartean. Kirol eta kultura mailan emakumearen parte hartzea gehiago garatu behar dela, alegia.

22 marimendiek hainbat lan egin dute. Beren ahaleginak beste batzuei indarra emango dien itxaropenaz abiatuko dira Europako tontorrera. **F**